



BIZKAIKO ELKARRERAGINGARRITASUN-PLATAFORMA

Dokumentua – Sarrerako/Irteerako datuak

Zerbitzua: Unibertsitateaz kanpoko tituluen kontsulta (HZM)



DESKRIPZIOA

Unibertsitateaz kanpoko tituluak kontsultatzeko web zerbitzuak bide ematen du pertsona fisiko jakin bati ematen zaizkion unibertsitateaz kanpoko titulu ofizialen inguruko informazioa kontsultatzeko (zerrenda beherago kontsulta daiteke **Eskuragarri dauden titulu*en atalean).

Zerbitzua arloko ministerio eskudunarekin konektatuko da; izan ere, erakunde horrek dauka ikastituluen datuak finkatzeko eskumena.

ESKATUTAKO DATUAK

Hauek dira kontsultatu nahi den pertsonari buruz gutxienez ere eman behar diren datuak:

- **Dokumentazio mota: (NAN/AIZ/Pasaporte/Beste batzuk).** Kontsultatu nahi den pertsonaren dokumentazio-mota.
- **Dokumentazio zk.:** kontsultatu nahi den pertsonaren dokumentazioa.

EMAITZAKO DATUAK

Eskabidea izapidetu ahal bada (egoeraren kodea: 003), beherago kontsulta kontsulta daitekeen **Eskuragarri dauden titulu*en ataletik, informazio hau itzuliko da:

- **Titular Datuak:** datuak kontsultatuak izan dituen titularren jaiotza-datuak:
 - o **Jaiotza Lekua:**
 - *Herrialdea*
 - *Probintzia Kodea: EIN* kodetzea.
 - *Probintzia*
 - *Udalerrria*
 - *Herria*
 - o **Jaiotza Data:**
- **Titulu Zerrenda:** zerbitzuak itzulitako tituluaren gaineko informazioa dauka. Titulu bakoitzeko, ondoko Titulazio Datuak itzuliko dira:
 - o **Zentroaren datuak:** zentroaren (titulua atera eta hura eman zuenaren) datuak:
 - Zentroaren kodea.
 - Zentroaren izena.
 - Probintziaren kodea: EIN kodetzea.
 - Probintzia.
 - o **Tituluaren datuak:** ateratako tituluaren datuak.
 - Egindako titulazioaren kodea.
 - **Titulazioaren izena.**
 - Titulu-motaren kodea.
 - Titulu-mota.
 - **Ikasketa-mota:** Hezkuntza Lege Orokorra (HLO), Hezkuntza Lege Orokor zaharra (HLOZ), Hezkuntza Lege Organikoa (HLOr), Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorraren Lege Organikoa (HSAOLO).
 - **Tituluaren maila.** (Ikus beherago **Tituluaren maila* taula).
 - **Tituluaren amaiera-data.**
 - **Tituluaren emate-data.** Titulua emateko tasen ordainketa-datari dagokio.
 - Titulua eman zuen herrialdearen kodea. ISO 3166-1 (zenbakizkoa) kodearen araberakoa izango da.



- Titulua eman zuen herrialdearen izena.
- Tituluaren autonomia-erregistroaren zenbakia.
- Arloko ministerio eskudunak esleitutako erregistro-zenbakia.
- Erregistroa: tituluaren erregistro-datuak dauzka:
 - LiburuHurrenkeraZenbakia: erregistro ofiziala agertzen duen liburuaren hurrenkera-zenbakia.
 - LiburuZenbakia: erregistro ofiziala agertzen duen liburuaren zenbakia.
 - OrriZenbakia: erregistro ofiziala agertzen duen (liburuaren) orriaren zenbakia.

Taulan (1. taula), Unibertsitateaz kanpoko tituluaren Kontsultako zerbitzuak itzul ditzakeen egoerak deskribatzen dira:

Egoeraren kodea	Egoeraren deskripzioa	Noiz itzultzen den egoera hau
0000	Derrigorrezko datu bat edo batzuk ez dira zuzen informatuak izan [].	Hori gertatzen da sarrerako datuetan balidazio-erroreak daudenean.
0003	Izapidetua.	Hori gertatzen da kontsulta zuzen egin eta erantzun-emaileak titularraren tituluaren datuak ematen dituzenean.
0232	Erregistro bikoiztuak aurkitu dira.	Zenbait balizko aurkitu dira titularraren datu bidalietarako.
0233	Identifikatu gabeko titularra.	Ez da ezein titularrik aurkitu bidalitako datuekin.

TITULAZIO ESKURAGARRIAK

- OHOkoko eskola-egiaztagiria, Eskola-graduatu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu,
- BBBko titulua, Batxilergoko titulua (HSAOLO eta HLOr); goi-mailako batxilergoa
- Merkataritza-laguntzailearen titulua
- Merkataritzako Perituaren titulua
- Teknikari Ortopedikoaren titulua
- Eskola-ziurtagiria LH1
- Ofizial Industrialaren titulua; LH1eko Teknikari Laguntzailea; Teknikariaren Titulua (HSAOLO eta HLOr); unibertsitateaz kanpoko diplomadunak (Betaurrekoen Optikaria); oinarrizko batxilergoa; Maila Ertaineko Kirol Teknikaria.
- Maisutza Industrialaren Titulua; LH2ko Teknikari Espezialista; Goi-mailako tituluak (HSAOLO eta HLOr); Goi-mailako Kirol Teknikaria.



- Peritu Takigrafo Mekanografoaren titulua
- Zeramika Artistiko eta Teknikoko Perituaren titulua
- Arte aplikatuetako Graduatuaren titulua
- Musikako Oinarrizko Gradua – diploma
- Musikako Gradu Profesionala – Profesionalaren titulua (1942ko plana)
- Musikako Gradu Ertaina – Irakaslearen titulua (1966ko plana)
- Musikako Goi-mailako Gradua – Instrumentista edo Kantari diploma
- Musikako Goi-mailako Gradua – Irakaslearen goi-mailako titulua (1966ko plana)
- Kultura Ondasunetako Kontserbazio eta Zaharberritzeko diploma eta HSAOLOko diplomadun baliokideak
- Lizentziaturen baliokideak diren HSAOLOko tituluak
- Musikako Titulu Profesionala eta Dantzako Profesionala (HSAOLO eta HLOr)
- Irakasle titulua – Musikako Goi-maila (1942ko plana)
- Honako ziurtagiri hauek: hizkuntza-eskola ofizialetako Gaitasun Agiria; oinarrizko mailako, erdi mailako eta goi-mailako hizkuntza-egiaztagiriak; erdi mailako eta goi-mailako espezialitate-egiaztagiriak; C1 eta C2 mailetako hizkuntza-egiaztagiriak, bai orokorrak, bai espezialitatekoak
- Oinarrizko Lanbide Heziketa Zikloak
- Espezializazio didaktikoa
- Arte irakaskuntzetako goi-mailako titulua (unibertsitate-izaerakoa da, baina unibertsitateaz kanpokoetan erregistratzen da)
- Arte irakaskuntzetako masterra (unibertsitate-izaerakoa da, baina unibertsitateaz kanpokoetan erregistratzen da)

TITULUAREN MAILA

MAILAREN BALIOA	DESKRIPZIOA
03	Oinarrizko Hezkuntza Orokorra
05	HLOko Batxilergoa



05	HSAOLOko Batxilergoa
05	HLOr-ko Batxilergoa
07	Lehen mailako Lanbide Heziketako Gradua
08	Bigarren mailako Lanbide Heziketako Gradua
13	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
13	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (HLOr)
14	Oinarrizko Lanbide Heziketa, 8/2013 Legea
15	Maila Ertaineko Lanbide Heziketa
15	Maila Ertaineko Lanbide Heziketa (HLOr)
16	Goi-mailako Lanbide Heziketa
16	Goi-mailako Lanbide Heziketa (HLOr)
17	HLOko hizkuntzak
17	HLOko hizkuntzak
17	HSAOLOko hizkuntzak
18	HLOko artistikoak
18	HSAOLOko artistikoak
18	HLOr-ko artistikoak
19	Espezializazio didaktikoa
20	HLOr-ko kirolekoak
99	Peritu Takigrafo Mekanografoa



BERTSIOAREN KONTROLA

V00	Jatorrizko bertsioa	2018/05/24
-----	---------------------	------------

GLOSARIOA